

FAKTURA ELEKTRONIKOA ERABILTZEKO BALDINTZAK

Erabilera-baldintza hauek Curenergía Comercializador de Último Recurso S.A.U.-ren (egoitza soziala: Plaza Euskadi 5, Bilbo) eta Curenergiaren Fakturazio Elektronikoa zerbitzuan alta ematen duten bezeroen arteko kontratu-harremana arautzen dute. Erabiltzaileak Fakturazio Elektronikoko zerbitzuan alta emateko urrats guztiak betetzeko, Fakturazio Elektronikoa zerbitzuaren erabilera-baldintza hauek guztiak berariaz, erabat eta erreparorik gabe onartu behar ditu.

LEHENENGOA. XEDEA

Erabilera-baldintza hauen helburua Curenergía enpresako bezeroen Fakturazio Elektronikoa zerbitzuaren baldintzak zehaztea da. Zerbitzu honetan alta emanez gero, alta hori indarrean jarritako datatik aurrera, bezeroak ez ditu jasoko papereko fakturak postaz, honako hizpaketa hauetan zehazten den moduan.

BIGARRENA. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

- 2.1. Bezeroak bere borondatez eta doan emango du alta Curenergiaren Fakturazio Elektronikoa zerbitzuan. Bezeroak edozein unetan uko egin ahal izango dio eskaera horri, eta ohiko papereko fakturaziora itzuli. Horretarako, Curenergiari horren berri eman beharko dio, Curenergiaren arreta-kanaletako edozeinen bidez.
- 2.2. Curenergiak eskaintako zerbitzuengatik igorritako fakturak Nire Bezero Gunean (NBG) kargatuko dira, webgune honetan: www.curenergia.es. Faktura horiek eskuratzeko, bezeroak Nire Bezero Gunean erregistratu beharko du, webgune honetan agertzen diren baldintzen arabera: www.curenergia.es. Fakturak formatu optikoan (PDF) eskuratu ahal izango dira; hortaz, bezeroak Interneten ikusten dituenean faktura horiek etxera paperez bidaliak izango lirartekeen formatu berean egongo dira.
- 2.3. Zerbitzu honetan alta emandako bezeroek ez dute jasoko ohiko faktura (inprimatua) etxean, baina horien paperezko kopia bat eskatzeko aukera izango dute beti, Curenergiak bezeroen esku jartzen dituen ohiko merkataritza-kanalen bitartez (bezeroarentzako telefonoa: 900 200 708). Kopia hori postaz helaraziko zaie.
- 2.4. Zerbitzu honek, fakturaren irudia eta xehetasunak pantailan ikusteko aukeraz gain, erabiltzailearen ordenagailuan deskargatzeko aukera ere ematen du. Modu horretan lortutako faktura elektronikoen oinarria sinadura elektronikoko sistema bat erabiltzea da. Horri esker, fakturaren jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzen da, EHA/962/2007 AGINDUAN (2007ko apirilaren 14ko BOE) aurreikusitako baldintzen arabera. Ildo horretan, gogorarazten dizugu aipatu aginduaren lehenengo xedapen gehigarrian honako hau ezartzen dela: "Administrazioari foru agindu honetan araututako agirien egiaztapena errazteko, datuak sortzeko erabilitakoak ez beste sistema informatiko batzuetan irakur daitezkeen euskarri informatikoetan gorde behar dira, eta gorde ere zergen arloko arautegian ezarritako epealdian." Curenergiak 2CA motako ziurtagiri elektronikoa dauka (x 509, v.3), Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalarena (FNMT), beren fakturretan sinadura elektronikoa aurreratua gehitzeko gaitzen duena.
- 2.5. Curenergiaren Fakturazio Elektronikoa zerbitzua mezu elektronikoa bidaltzeko sistema baten bitartez jarriko da abian. Sistema horrek alta emandako bezeroei ohartaraziko die kontratatutako zerbitzuen fakturak eskuragarri dituztela NBGaren bitartez kontsultatzeko (www.curenergia.es webgunean).
- 2.6. Nolanahi ere, zerbitzuaren erabiltzailearen ardura izango da Curenergiari ohartarazpenak jaso nahi dituen posta elektronikoko helbidean izandako aldaketak jakinaraztea. Erabiltzaileak ohar hori jasotzen ez badu ere, akats bat eman delako Curenergiari helarazitako helbide elektronikoa edo beste edozein arrazoiengatik, ez zaio etengo Curenergiaren Fakturazio Elektronikoa zerbitzua, erabiltzaileak alta eman ondoren eta eskaerari uko egin ezean.

HIRUGARRENA.- ZERBITZUAN ALTA EMATEA

- 3.1. Zerbitzuan alta emateko www.activatufacturaelectronica.curenergia.es webgunea erabil daiteke; bertan, erabiltzaileak bere nortasuna egiaztatu beharko du eskatzen zaion informazioaren bidez (NAN/IFZ/IFK) eta Erabilera-baldintza hauek onartu beharko ditu.
- 3.2. Erabiltzailea argindar- edo gas-kontratu bat baino gehiagotako titularra bada edo Curenergiak ematen dituen zerbitzu bat baino gehiago baditu kontratatuta (faktura bat baino gehiagorekin), Fakturazio Elektronikoa zerbitzuaren alta titular gisa dituen kontratu guztiei aplikatuko zaie. Edonola ere, bezeroak titular gisa dituen kontratuak batean edo gehiagotan eman ahal izango dio baja faktura elektronikoa, NBGan edo Curenergiaren arreta-kanaletako edozeinetan dauden bitartekoak erabiliz.

LAUGARRENA.- INDARREAN JARTZEA

- 4.1. Erabiltzaileak, webgune honetan dagoen formularioa, behar bezala beteta, bidaltzen duen unetik aurrera, Curenergiaren Fakturazio Elektronikoa zerbitzuan alta emateko baimena ematen duela ulertuko da. Une horretatik aurrera, erabiltzaileak testu honetan zehaztutako baldintza guztiak onartu ditu eta bere gain hartuko ditu.

BOSGARRENA.- CURENERGÍAREN KONPROMISOAK

5.1. Curenergiak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere faktura elektronikoen zerbitzuan alta ematen duen bezeroarekiko harremanean.

a). NBGaren bitartez, zerbitzuan alta emanda dauden erabiltzaileek emandako helbideetara mezu elektronikoa bidatzeko sistema bat jarriko du abian. Zerbitzu honen erabiltzaileek mezu bat jasoko dute beren ontzian, eta bertan jakinaraziko zaie faktura www.curenergia.es webguneko NBGan dutela ikusgai, xehetasun guztiekin. Jakinaraziko zaie, halaber, nahi izanez gero etxean inprima dezaketela.

b). Informatika-sistemek mezu elektronikoren bat behar bezala bidali ez dela detektatzen badute, mezu elektronikoa hori berriro bidaliko da. Edonola ere, faktura elektronikoa www.curenergia.es webguneko NBGan kontsultatzeko ez da beharrezkoa abisua bidalita eta jasota egotea. Abisua informatzeko baino ez da, eta bezeroaren arduraren da bere helbide elektronikoa behar bezala eguneratzea.

5.2. Curenergiak kontsulta segurua eta konfidentziala izango dela bermatzen du; hain zuzen ere:

a). Helbide elektronikoen bidez abisatzeko mezuan ez da agertuko fakturari buruzko informaziorik, hauek salbu: jaulkipen-data, zenbatekoa eta kontratua identifikatzeko erreferentzia-zenbakia.

b). Bezeroa www.curenergia.es webguneko NGBra sartzen denean faktura kontsultatzera, bere nortasuna egiaztatze eskatuko zaio, erabiltzaile-izena eta pasahitza sartuta. Gako horiek desberdinak izango dira bezero guztientzat eta konfidentzialki helaraziko zaizkie.

c). Gainera, bezeroak nahi duenean aldatu ahal izango du bere sarbide-gakoa, NBGaren funtzionalitateaz baliatuz.

SEIGARRENA.- BEZEROAREN KONPROMISOAK

6.1. Bezeroak honako konpromiso hauek hartzen ditu Curenergiaren Fakturazio Elektronikoa zerbitzuan alta ematen duenean:

a) Eskaera-formularioak eta horietako eremuak ondo betetzea, informazio zuzena eta zehatza emanez, zehaztutako argibideei jarraituz.

b) Abisua jasotzeko helbide elektronikoen (bat edo gehiago izan daitezke) egon daitezkeen aldaketa guztien berri ematea, www.curenergia.es webguneko NBGan zehaztutako prozedurei jarraituz.

c) Formularioko eremu guztiak betetzea, kontrakoa ezarri ezean. Hala egin ezean, Curenergiak ez du bermatuko NBGaren bidez eskaintzen dituen zerbitzu guztiak emango dituenik (bereziki abisua helbide elektronikora bidaltzeko konpromisoa, emandako helbidea zuzena ez bada).

ZAZPIGARRENA.- ERANTZUKIZUNAK

7.1. Bezeroak www.activatufacturaelectronica.curenergia.es webguneko eskaera-formularioan emandako datu pertsonal guztiak egiazkoak eta zehatzak direla eta eguneratuta daudela bermatzen du, eta bere gain hartzen du horien gaineko erantzukizuna.

ZORTZIGARRENA.- DATUEN BABESA

8.1. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa (15/1999 LO) ezarritakoa betetze aldera, bezeroari jakinarazten zaio zerbitzu hau kontratatzearen ondoriozko bere datu pertsonalak Pribatutasun Politika atalean ezarritako baldintzetan erabiliko direla, eta hark onartzen du.